

**EUSKAL ADITZ INFLEXIOAREN ARGUMENTU SISTEMA ETA ZENBAIT  
ARAZO**

Jon Etxebeste Arozena

Euskal Ikasketak 2014-2015 / Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

Tutorea: Javier Ormazabal Zamakona

## LABURPENA

Ezaguna da euskal morfologiak, modu batera edo bestera, jadanik jorratuak dituen gai asko barnebiltzen dituela. Euskarak, hizkuntza eranskaria izanik, morfema aukera zabala eskaintzen du eta, beharbada, eremu emankorra izateak erakarri izan du hainbeste ikerlari euskal morfologiara. Badago, euskal morfologian aztergai diren gai guztien artean, eta gaurkotasunezko terminologiaz baliatzea atrebentzia handiegia ez bada behintzat, *trending topic* gisara sailka genezakeen gai bat: euskal inflexio morfologia.

Marko teoriko bat baino gehiagotik heldu izan diote gaiari hizkuntzalariek. Zenbaitek diakroniaren ikuspegitik landu duen bitartean, beste askok sinkroniara jotzea erabaki dute; beste batzuk, sinkronian nahiz diakronian, azterbide morfologiko hutsetik aritzea erabaki dute; ondorio morfologikoak sintaxiari egozten dionik ere bada, etab. Kontuak kontu, gaia lantzeko ikuspegi bat baino gehiago dago eta guztiak dira aberasgarriak. Lan honetako nire azterbidea eta helburu nagusiak batetik, eta lehenari dagokionez, euskal inflexio morfologiaren gaur egungo argazki deskriptibo bat egitea eta, bigarrenaren aldetik, gai honi buruz orain arte egin diren lanik interesgarrien (nire ustearen arabera) ideia nagusienak biltzea izango dira.

Euskal inflexio morfologiaren osaerak irregulartasunak erakusten ditu zenbait kasutan. Irregulartasunak jokoera erregularra erakusten duten egiturak identifikatuz etortzen dira. Perpaus iragangaitzen subjektuari dagokion komuntadura marka beti agertzen da aditzaren (erroaren) ezkerretara. Ezin, ordea, gauza bera esan perpaus iragankorretako subjektuei dagokienez: ezkerretara zein eskuinetara ager daiteke (irregularra da beraz). Irregulartasun hauei bilatu (edo aurkitu?) zaizkien erantzunak agertzen saiatuko naiz. Horretarako, lan hau bi multzo nagusitan banatu nahi izan dut. Lehenik, gaur egungo euskal aditz jokatueta morfema-sistemaren deskribapena egiten ahaleginduko naiz (1.), erakusten dituen erregulartasun nahiz arazoak zeintzuk diren planteatuz (argumentu sistemaren egitura (1.1.) landuko dut batik bat); bigarrenik, delako arazo hauek, gaiaren historian zehar, jaso dituzten erantzun desberdinak biltzen eta azaltzen ahaleginduko naiz (ikus 2. puntua): ea *d-*, *z-/ø-*, *l-* eta *b-* aurrizkiek **pertsona markak** edota **denbora, aspektua** eta **modua** ordezkatzen duten (2.1.); ea *da-* aurrizkia **adberbioa** ala **inflexioa** den (2.2.); eta, azkenik, *ergatiboaren lekualdatzea* (2.3.) fenomenoari emandako

irtenbide pare bat (Gomez (1994) (2.3.1.) eta Ormazabal (2013) (2.3.2.)) aurkeztuko ditut.

## AURKIBIDEA

1. EUSKAL ADITZ JOKATUAREN ARGUMENTU SISTEMAZ .....	5
1.1. Argumentu sistemaren deskribapena .....	6
1.1.1. Perpaus iragangaitzeko subjektua (S) .....	6
1.1.2. Perpaus iragankorreko subjektua (E) .....	7
1.1.3. Objektu zuzena edo jasalea (OZ) .....	8
1.1.4. Zehar objektua edo hartzailea (ZO) .....	8
2. HIRUGARREN PERTSONA ABSOLUTIBOA ETA DENBORA: HIRU ARAZO.....	9
2.1. <i>d-</i> , <i>z-/ø-</i> , <i>l-</i> , <i>b-</i> : pertsona markak vs. denbora-aspektua-modua .....	10
2.1.1. Oregi (1974) .....	11
2.1.2. Trask (1977) .....	11
2.1.3. de Rijk (1992) .....	13
2.2. <i>da-</i> : Inflexioa vs. adberbioa .....	15
2.2.1. Gomezen hipotesiaren (1994) arazoa .....	18
2.3. Ergatiboaren lekualdatzea .....	21
2.3.1. Gomez (1994) .....	21
2.3.2. Ormazabal (2013) .....	23

## 1. EUSKAL ADITZ JOKATUAREN ARGUMENTU SISTEMAZ

Euskal aditz jokatuak aberatsa da bil dezakeen informazio kopuruaren ikuspegitik aztertuta, baina baita alderdi formalek begiratuta ere. Jakina denez, euskarak aditz sintetikoak eta analitikoak ditu (lehena “trinko” eta bigarrena “perifrastiko” izenez ere ezagutzen dira). Ondorengo adibide saileko lehenak aditz sintetikoak biltzen ditu eta bigarrenak, berriz, analitikoak:

- |     |                     |                         |                            |                             |
|-----|---------------------|-------------------------|----------------------------|-----------------------------|
| (1) | a. <i>n-oa</i>      | b. <i>da-tor-ki-zu</i>  | c. <i>da-ki-gu</i>         | d. <i>zene-rama-te-n</i>    |
|     | 1SG-A               | OR-A-DM-2PL             | OR-DM-1PL                  | IRAG-A -PL-IRAG             |
| (2) | a. <i>joango da</i> | b. <i>erori za-i-zu</i> | c. <i>ikus d-eza-ke-gu</i> | d. <i>erosi d-i-zki-o-t</i> |
|     | A OR                | A A-DM-2PL              | A OR-A-MOD-1PL             | A OR-DM-PL-1SG-1SG          |

Aditz sintetikoak inflexioari dagozkion morfemak guztiak biltzen dituen adizki mota da (1). Aditz analitikoek aditz lexikoa (dagokion aspektu markarekin), alde batetik, eta komunztadura markak, denbora eta modua, bestetik, bereiz biltzen dituzte (2). Euskararen bilakabideak erakusten duen egungo joera *aditz sintetikoa > aditz analitikoa* dela dirudi gai honi dagokionez: gero eta aditz trinko gutxiago ditu euskarak erabilgarri eta, albo hizkuntzetan gertatzen ez den bezala, euskarak ezin du mailegatzten dituen aditz berriekin egitura trinkorik sortu (gaztelaniaz, esaterako, *klikatu* aditz jaioberria analitikoki joka daiteke eta gainerako aditz berriekin ere gauza bera egiten da). Azterketa diakroniko baterako gai interesgarria da hemen planteatzen dena, alegia, ea bietatik zein den formarik zaharrena. Nik dakidala bi dira, euskal aditzaren sailkapen honi dagokionez, alde banatan kokatu diren jarraitzailerik sutsuenak gaiaren historian zehar: Oihenartek, *Notitia*-n (1656), aditz trinkoaren jatorria (*propria*, bere hitzetan) aldarrikatu zuen; Larramendik, aldiz, euskarak joko perifrastikoa berezkoa duela esan zuen bere gramatikan (1729). Kontuak kontu, gaur egungo paradigmak erakusten duen egoera forma analitikoaren aldekoa da, nahiz eta, txistek egiteko sortuak badira ere, *dizerdit* edo *daroski* bezalako aditz trinko bitxiak ere gero eta gehiago entzuten diren. Artikulu honetan biak hartuko dira aintzat azterketa morfologikoetarako.

Morfema egiturari dagokionez, informazio sail zabala eskaintzen du euskal aditz jokatuak eta baditu erregularri errepikatzen dituen patroi morfologikoak ere. Ondorengo eskemak aditz jokatuak erakusten duen egituraren deskribapen orokorra erakusten du

(Ariztimuñoren proposamena (2013) ekarri nahi izan dut lan honetara sistema osoa egoki islatzen duelako):

- (3) S/OZ~E + Denb<sub>1</sub> + A + DI + ZO + Mod + E~OZ + Denb<sub>2</sub><sup>1</sup>  
(Ariztimuño, 2013:363)

Jarraian, argumentu sistemaren azterketa sakonagoa aurkeztuko dut.

### 1.1. Argumentu sistemaren deskribapena.

Gorago aipatu bezala euskal aditz jokatuak hiru argumentu hartzen ditu (perpasean agertzen diren pertson(ar)en eta numero(ar)en arteko komunztadura gorde behar dute guztiek, bide batez): Subjektua (perpase iragangaitzekoa eta perpase iragankorrekoa), objektu zuzena eta zehar objektua.

#### 1.1.1. Perpase iragangaitzeko subjektua (S)

Perpase iragangaitzeko subjektuari dagokionez aditzaren ezkerretara agertu ohi da beti, salbuespenik gabe:

- (4) a. *g-a-to-z*    b. *joan z-a-ra*    c. *n-en-bil-en*    d. *etorri h-a-tza-i-o*

- (5) a. *∅-da-tor*<sup>2</sup>    b. *etor z-∅-e-di-n*    c. *l-∅-e-go-ke*    d. *etorri ∅-∅-za-i-o*

Lehenengo eta bigarren pertsona subjektu-absolutiboak (4) egitura gardena erakusten du morfemen posizioari dagokionez: aditzaren (erroaren) ezkerretara agertzeaz gain, hitz hasieran kokatzen da. Hirugarren pertsonak arazo gehiago planteatzen ditu (5), ez baitago garbi, zenbait kasutan, zein den bete behar lukeen posizioa. Ikuspuntu diakronikotik begiratuta, (5a) adibidean, esaterako, analisiak ez du beste aukerarik ematen baldin eta *nator* < \**ni-da-tor* bilakabidea onartzen bada. Aldiz, (5b) eta (5c)

---

<sup>1</sup> Laburdurak euskarara egokitu ditut. Pluralgileak eta alokutiboak albo batera utzi dira (egileak berak egin duen bezala). Laburduren zerrenda: *S* (perpase iragangaitzeko subjektua); *E* (perpase iragankorreko subjektua edo egilea); *OZ* (objektu zuzena edo jasalea); *ZO* (zehar objektua edo hartzailea); *DI* (datibo ikurra); *Denb* (denbora); *Mod* (modua); *A* (aditza/erroa).

<sup>2</sup> *-da-* bere horretan aztertu dut *d-* ez dudalako izenordaintzat hartzen eta Lakarraren \**dar* berreraiketa onartzen dudalako.

adibideak nahasgarriak dira zentzu honetan: hirugarren pertsona marka lehenengo nahiz bigarren posizioan jarrita emaitza bera izango genuke. Diakroniarekin jarraituz, sail honetako azken adibideak (5d) bestelako problematika erakusten du, hau da, orainaldiko forma bat izanik bitxia da *zai*o izatea eta ez, aldiz, *\*\*da(t)zai*o. Baina irakurketa egokia, beharbada, aurkako norabidean egindakoa izan daiteke: zergatik egiten zaizkigu hain bitxi eta ezohiko *natzai*o edo *gatzaizkizu* bezalako aditz egiturak? Erantzuna (*da*)*zai*o-ren analogiaz sortuak direla izan daiteke. Hala ere, planteamendu honek baditu kontuan hartu beharrekoak diren zenbait faktore (Preson Case Constraint (PCC) murriztapena, besteak beste). Lan honetako bigarren atalean (2.3.2.) gehiago sakonduko dut gai hau.

### 1.1.2. Perpaus iragankorreko subjektua (E)

Euskal inflexio morfologiak erakusten duen irregulartasunik ezagunenetakoa dakar perpaus iragankorreko subjektuaren kokalekuak (*ergatiboaren lekualdatzea* deritzon fenomeno, aurrerago agertuko da gai honi buruzko atala(2.3)): aditzaren ezkerretara zein eskuinetara agertzen da.

(6) a.  $\emptyset$ -*da*-*ki*-**gu** b. *ikusi n-ind-u-zu-n* c. *erosi  $\emptyset$ -d-i-zu-t* d. *g-a-rama-tza-k/n*

(7) a. **g**-*en*-*ekar-tza*- $\emptyset$ -*n* b. *ikusi z-en-u- $\emptyset$ -en* c. *erosi n-i-zu- $\emptyset$ -n* d. **h**-*e-rama- $\emptyset$ -n*

Adibide sail honek erakusten duen arazorik nagusiena (6)-(7)ko ergatiboaren txandakatzeak dakarrena da: ez du ergatiboaren kokapen kanonikoa zein den argi uzten. Bestalde, ergatiboak hartzen duen kokalekua alde batera utzita, absolutiboaren posizioa zein izan daitekeen ez dago batere garbi, ez baitauka ageriko morfemarik. Subjektu iragangaitzak absolutibo kasuan eta, aurrez ikusitakoaren arabera, aditzaren ezkerretara agertzen dira beti. Beraz, hemen ere (*ERG*)-*ABS-ERROA-DAT*-(*ERG*) moduko zerbait espero behar genuke absolutiboarentzat. Aldiz, Trasken proposamena (1977) eta Gomezek beranduago egindakoa (1994) aintzat hartzen baditugu, hau da, euskara inoiz *SVO* edo *VSO* (autoreok esandakoa hurrenez hurren) motatako hizkuntza izanarena, osagarriak aditzaren eskuinetara agertu behar luke. Aurrerago gai honen inguruko deskribapen zehatzagoa egingo da.

### 1.1.3. Objektu zuzena edo jasalea (OZ)

Argumentu honek ohikoa du aditzaren ezkerretara agertzea, hitz hasierako kokalekuan gainera. Hala ere, hirugarren pertsonako zenbait kasutan arazo bat sortzen da gai honi dagokionez. Ikus ondorengo adibideak:

(8) a. *n-a-kar-∅* b. *ikusi g-a-it-u-∅* c. *eraman z-a-it-u-t* d. *g-a-rama-tza-zu*

(9) a. *∅-da-kar-∅* b. *galdu ∅-d-∅-u-gu* c. *saldu n-∅-i-zu-∅-n* d. *h-e-kar-∅-en*

Lehenengo adibideak (8) ageriko pertsona-markak erakusten dituen ez dago arazorik kokapena zehazteko: lehenengo eta bigarren pertsona komunztadurak beti agertuko dira kokaleku horretan. Aldiz, (9) adibideak arazoak sortzen ditu, objektu zuzenak ez baitu ageriko morfemarik: non kokatu fonologikoki agerikoa ez den morfema bat? (8a) eta (9a) konparatzen baditugu, azken honek erakusten duen objektu zuzenaren morfema aditzaren ezkerretara kokatzea proposa daiteke; gauza bera egin daiteke (9b)-rekin, (8b) adibidearekin parekatuta; baina, ergatiboa lehenengo kokalekuan agertzen denean, hau da, (9c) eta (9d) adibideek erakusten dutenaren arabera, ezin da proposamen ziurrik egin.

### 1.1.4. Zehar objektua edo hartzailea (ZO)

Datibo komunztadurari dagozkion morfemak aditzaren eskuinetara agertzen dira (10), eta aurretik Datibo Ikurra izaten dute. Badira kostaldeko hizkera batzuetan agertzen diren egitura bitxiak (11): datiboak, itxuraz, hitz hasierako kokalekua hartzen du. Ikus ondorengo adibideak:

(10) a. *da-go-ki-gu* b. *irabazi d-i-o-zue* c. *erori za-i-zu*

(11)<sup>3</sup> a. *esan n-a-(u)-zu-∅* b. *ikusi n-a-u-∅-(∅)* c. *esan z-a-it-u-t-∅*

---

<sup>3</sup> Lezo eta Oiarzun inguruan (ere) erabiltzen dira forma hauek. *Datiboaren lekualdatzea* izena jarri zion B. Fernandezek (2010).



Bigarren adibide sortak erakusten duenez (11), itxuraz NOR-NORK egiturako aditz inflexioak izanik, hiztunak NOR-NORI-NORK (edo NORK-NORI, biak 11b-ren kasuan) modura tratatzen du zenbait lekutako hizkeretan, *absolutibo datibotu* moduko egitura bat sortuz. Horrela, *Zuk nei gezurra esan nazu baina harek nei (=ni) ikusi nau / harek nei galtzak ikusi nazki* perpausak sor ditzake hizkera hau duen hiztun batek. Kasu hau salbuespen bat da datiboaren leku kanonikoari dagokionez, baldin eta ikuspuntu morfologikotik ere datiboa dela onartzen bada.

## **2. HIRUGARREN PERTSONA ABSOLUTIBOA ETA DENBORA: HIRU ARAZO**

Euskal aditzaren inflexio morfologiak zenbait hizkuntzalariren arreta bereganatu du ikerketak orain arte egin duen ibilbide osoan zehar. Hor dira, esaterako, zenbait morfemen berreraiketak proposatu zituztenen artean, Schuchardt (-o- < (h)or (1893), l- < ahal (1923) etab.), Lafon (1954) (b- < ber), Jacobsen (1975) (2. pertsona singularreko \*-na-ga), Trask (1977) (\*da- aspektuarekin lotutako aurrizkia), eta analisi berriagoak diren de Rijk-en (1992) d- < \*dan aldia adierazten duen morfema edo Lakarraren azken urteotako proposamen andana, beste askoren artean. Pertsona komuntadura adierazten duten morfemen jatorriak proposatzerakoan, lehenengo eta bigarren pertsonak erakusten duten pertsona izenordainekiko lotura nabarmena da, Jacobsonen proposamenak erakusten duen moduko salbuespen batzuk kenduta (\*na-ga vs. hi). Ez da gauza bera gertatzen hirugarren pertsona absolutiboarekin: d-, z-/Ø-, l- eta b- morfemak ageri zaizkigu eta arazo bat sortzen da morfema hauen jatorria hirugarren pertsona izenordainarekin lotu nahi bada, baldin eta hirugarren pertsona pertsonatzat hartzen bada, honek beste arazo bat suposatzen baitu.

Atal honetan gorago aipatu morfema hauek planteatzen dituzten hiru arazoren berri emango dut. Batetik, eta ikuspuntu diakronikotik aztertuta, ikerlarien artean iritzi desberdinak agertu dira hirugarren pertsona absolutiboaren markapen morfologikoaren inguruan: zenbaitek ageriko pertsona morfemak proposatu dituzten bitartean beste batzuek denbora edo/eta aspektuarekin lotu dituzte morfema hauek (aurrez aipatu ditudan d-, z-/Ø-, l- eta b- morfemak) (ikus 2.1. atala); bestalde, pertsona markatzat hartu ez dituztenen artean bestelako eztabaidak sortu dira eta oraindik zenbait proposamen azaldu gabe daude, edo erabat asetzen ez duten ideia batzuk geratzen dira

azaltzeke. Atal honetan (2.2.) *da-* aurritzia aztertuko dut Gomezen artikulu interesgarria (1994) abiapuntutzat hartuta; azkenik, *ergatiboaren lekualdatze* fenomenoaren hirugarren pertsona absolutiboarekin lotuta dagoenez gai honi buruz egin diren analisiak (Gomez (1994) eta Ormazabal (2013) lanak) aipatuko ditut azken azpiatalean (ikus 2.3. atala).

### 2.1. *d-*, *z-/ø-*, *l-*, *b-*: pertsona markak vs. denbora-aspektua-modua

Analisi onartua da pertsona-komunztadura markak jatorrizko izenordain askeak izan zirela eta, klitizazio prozesu baten ondorioz, gaur egungo aditz inflexio formara egokitua izatera igaro direla. Hona hemen euskal izenordain askeen paradigma (aitzineuskararako proposatzen direnak erantsi ditut):

	Singularra	Plurala
1	ni	gu
2	hi	zu
3	∅	∅

1. Taula: aitzineuskarak dituen izenordain askeen paradigma.

Eta jarraian euskal aditz jokatuak erakusten dituen pertsona-markak erantsen ditut:

	ABS/ERG	DAT	ERG <sup>4</sup>
1s	n-	-da	-da
2s	h-	*-ga-/-na-	*-ga-/-na-
3s	∅-	-o, -a	-∅ (+ABS)
1p	g-	-gu	-gu
2p	z-	-zu	-zu
3p	∅-	-e	-∅ (+ABS)

Begien bistakoa da izenordain askeen eta pertsona-marken arteko antzekotasuna hitz hasierako (absolutibo/ergatiboko) lehenengo eta bigarren pertsonen dagokionez<sup>5</sup> (*ni, hi, gu, zu / n-, h-, g-, z-*). Beraz, diakronikoki begiratuta, gaur egungo pertsona

<sup>4</sup> Absolutiboa ere bai 3. pertsona-markentzat.

<sup>5</sup> Alde batera utziko ditut datibo nahiz ergatiboko (hitz amaierako) lehenengo eta bigarren pertsona singularrak (*ni, hi* vs. *-da, \*-ga-/-na-*). Azalpen desberdinak eman izan dituzte Schuchardt (1893), Lafon (1943), Martinet (1955), Trask (1977) eta Jacobsen (1975) ikerlariek.

komunztadura markak (1. eta 2. pertsonen dagozkienak) garai bateko pertsona izenordainak izan zirela onar daiteke. Ikuspuntu sinkronikotik begiratuta, ageriko pertsona markak dira eta ez dira aldatzen denbora, aspektua eta moduen arabera. Absolutiboa hirugarren pertsona denean, ordea, morfema edo marka bat baino gehiago agertzen dira aurrizki gisa (denbora, aspektua edo moduaren arabera aldakorrak direnak, bide batez): *d-*, *z/ø-*, *l-*, *b-*. Heath-ek (1977) orainaldiarekin lotutako 3. pertsona markatzat hartu zuen *d-* aurrizkia. Berrikiago egindako analisi bati bagagozkio, Hualde & Ortiz de Urbinak (2001) aipatu aurrizki guztiak pertsona markatzat hartzen dituzte. Jarraian, orain arte egindako proposamen interesgarrienak iruzkinduko ditut (batik bat orainaldiko *d-* morfemaren inguruan egindako analisiak hartuko dira aintzat).

### 2.1.1. Oregi (1974)

Lehenengo eta bigarren pertsona izenordainen eta aditz jokatuan agertzen diren pertsona marken artean lotura zuzena ikusten du Oregi:

*NA-tor*, *HA-tor*, *DA-tor*, *GA-tor-z*, *ZA-tor-z*, *DA-tor-z* bezelako flesio-sail baten, *NI/NA-*, *HI/HA-*, *GU/GA-*, eta *ZU/ZA* elkarren ondoan idaztea aski dugu aditz-zatiok izenordeekin daukaten aria garbi ikusi eta esanahiez jabetzeko. (Oregi, 1974:266. Letra etzana nirenda).

Hirugarren pertsonak ez du egoera bera erakusten eta *HURA/DA-* eta *HAI EK/DA-(z)* formek erakusten duten irregulartasunaz baliatzen da *d-* morfema hirugarren pertsona absolutiboari ez dagokiola baieztatzeko. Gainera, hiztunak gerora egindako interpretazio modura ulertzen du *hura da-tor* forma (jatorriz NOR esanahirik gabeko adizki bat dela dio, gerora gehitu omen zaio *hura* izenordaina, eta honen ondorioz baita paradigma osora hedatu ere (Oregi, 1974:268)).

Bestalde, *d-* orainaldiarekin lotzen du. Hori frogatzeko orainaldikoak ez diren formak erakusten ditu eta azken hauetan *d-* modukorik ez dagoela ondorioztatzen du.

### 2.1.2. Trask (1977)

Traskek egiten duen analisiak aspektuarekin lotura zuzena dauka. Oregiren proposamen aitzindariari urrats bat gehitu zion *da-* aspektu imperfektuarekin lotuz:

What I propose is that *da-* is a single prefix, and that this was the original full form of the present/continuous verbal affix. It is just conceivable that this *da-* is to be identified with the verb *da* ‘he is’, and that the present tense therefore has its origin in a periphrastic construction, but this possibility will not be explored here. (Trask, 1977:204-205)

Aspektua adierazten duen *d-* morfema beti orainaldiarekin lotuta dagoela adierazten duen bezala lotzen ditu gainerako *z-/∅*, *l-* eta *b-* morfemak dagozkien denbora-modu-aspektuaren arabera (lehenengoa(k) beti iraganarekin agertzen d(ir)ela dio, bigarrena ahalerarekin eta hirugarrena aginterarekin). Ondorioz, ez ditu pertsona markatzat hartzen.

Bestalde, eta goiko aipua dioen bezala, *da-* gaur egungo *da* inflexioa izan daitekeela iruzkintzen du, orainaldiarekin lotuta agertu ohi den (eta, beraz, *d-* aurrizkiaren ondoren datorren) *-a-* hizkiarekin egiten duelarik lotura. Arrazoibide honek eramaten du *-a-* dun orainaldiko gainerako pertsona markei dagozkien berreraiketak: *nago* < \**ni-da-go* etab. Eta *dago* formaren hirugarren “pertsonatasuna” aurreko bilakabidearen berrinterpretazioz (*nago* vs. *dago*) sortua dela gaineratzen du.

Aipatu iruzkinez gain, *da-* aurrizkiari egindako analisi hauek onartzeak bestelako arazo tipologiko bat sorrarazten duela dio: *da-* aurrizkia bada euskarak ezin zuen SOA hizkuntza izan. Hitz hurrenkeraren eta morfema-ordenaren arteko lotura egiten lehena izan zen, nik dakidala, eta euskara SOA ez baina jatorrian SAO zela aldarrikatu zuen artikulu honetan, aditz iragangaitzen inflexioek gaur egun osatzen duten egitura kanonikoak ikusarazi zuen euskararen jatorrizko sintaxi egitura ere modu berekoa izan zitekeela.

Trasken morfema honen inguruko proposamena egokia iruditzen zait. Bere alde jokatzeko du Heine-k proposatutako gramatikalizazio prozesuetan ohikoak diren bilakabideetariko batek: “Present tense and imperfective markers are frequently derived from progressive markers” (Heine, 2003:594). Traskek egindako iruzkina *da-* jatorrizko *present/continuous* forma izan zela jakinik, eta gaur egun orainaldiarekin lotuta dagoela ikusirik, onargarria den analisia da.

Bestalde, hitz hurrenkera eta morfema-ordena ez datoz beti bat munduko hizkuntzetan. Ariztimuñok egiten duen deskribapena egokia iruditzen zait:

litekeen zerbait da, baina inola ere ez nahitaezkoa (ezta ohikoena ere, beharbada), hizkuntza baten ordena sintaktikoak eta aditz-morfologiarenak bat etortzea (cf. Comrie 1980). Orobat esan genezake alderdi horien eta lerrokatze morfosintaktikoaren artekoaz. Esate baterako, WALSek datuei so eginez, predikatu iragankorretako subjektuaren (S), objektuaren (O) eta aditzaren (V) arteko ordena-aukerak aditzeko komunztadura marken (A = egile, P = jasaile) agerpenaren eta beraien hurrenkera erlatiboaren datuekin gurutzatuz gero, ondoko emaitza lortuko dugu<sup>6</sup>:

	% ez	A-P	P-A	biak	A+P	A hutsa	P hutsa	Guztira
SOV	26,8	9,7	29,3	4,9	4,9	15,9	8,5	41
SVO	30,0	33,3	3,3	6,6	3,3	20,0	3,3	30
VSO	33,3	22,2	11,1	—	11,1	22,2	—	9
VOS	20,0	60,0	—	—	20,0	—	—	5
OVS	—	50,0	—	50,0	—	—	—	2
ord. nag. ez.	15,4	38,5	15,4	7,7	7,7	15,4	—	13
Guztira	26	25	16	6	6	16,5	4,5	100

A-P hurrenkerarako joera ia orokorra (salbu eta SOV hizkuntzetan!) aipa genezake. Beraz, hitz ordena eta morfema ordena ez datoz bat, aitzitik, SOV hizkuntzen kasuan “kontrako” ordena lekukotzen da gehien (S-O vs P-A). (Ariztimuño, 2013a:44)

Trasken bidea ixten ez duen beste aukera bat izan liteke Ariztimuñoren analisi hau.

### 2.1.3. de Rijk (1992)

Euskararen dialekto guztietan ‘une honetan’ adierarako erabiltzen den adberbio komuna *orain* da. Adberbio hau latinezko *hora* hitzetik eratorria (\**ora* + *en*) izan dela adierazi zuen Mitxelenak, eta de Rijket etimologia hau ontzat ematen du artikulu honetan. *Orain* mailegua izanik, eta erromatarren aurreko garaietan euskaldunek erabiltzen zuten ‘orain’ adieradun hitza zein izan zitekeen argitu gabe gelditzen zela iruzkinduta, de

<sup>6</sup> Zutabeen esanahia: *ez* ‘komunztadura markarik gabeak’; *A-P* ‘A-ri dagokion marka P-ri dagokionaren aurretik doa’; *P-A* ‘P-rena A-renaren aurretik’; *biak* ‘bi ordenak gerta litezke’; *A+P* ‘argumentu biak batera marka bakarraz adierazirik’; *A hutsa* ‘A-ren komunztadura bakarrik’; *P hutsa* ‘P-ren komunztadura bakarrik’. Bestalde *ord. nag. ez* errenkadan ‘ordena nagusirik ez duten hizkuntzak’.

Rijkek *\*dan* ‘aldia’ adierazten duen morfema berreraiki zuen arrazoibide nagusi batzuk emanaz:

a) Intxauspek dakarren *oraidara* formatik *orai* + *da* analisia egiten du, *da* morfemari (*da* < *\*dan*) ‘orain’ esanahia egotziz. Beraz, *orain* + *orain* moduko egitura bat litzateke bere ustez, esanahi berbera duten *gaur* eta *egun* adberbioek *gaurregun* forma osatzen duten bezalaxe sortua.

b) *da* morfemaren arrastoak aurkitzen dira *oraindanik* edo *gaurdaino* bezalako formetan, ‘orain’ esanahiarekiko lotura zuzena adieraziz.

c) Ondorioz, euskal aditz jokatuan agertzen den orainaldiko *da*- morfema ‘orain’ esanahia duen *\*dan* morfematik datorrela ondorioztatzen du.

Proposamen honek gutxienez hiru zirrikitu dauzka. Lehen, eta Trasken proposamenarekin aipatu bezala, *progresibo* → *orainaldi* bilakabidea ohikoa da munduko hizkuntzetan, baina, gramatikalizazio bilakabideak norabide bakarrekoak direnez (Heine, 2003), alderantzizkoa ez da posible. Bigarrenari dagokionez, Lakarrak (2006) *da* morfemadun hitz orok ez duela orainaldia erakusten azaltzen du, geroaldia adierazten duten formetan ere ager daitekeela erakutsiz. Azkenik, Lakarrak berak aurrizki honi beste etimologia egokiago bat, nire ustearen arabera, aurkitzen dio. Morfemen jatorriak berreraikitzeke euskarazko beste elementu lexikoekin egindako saiakera ugarietak eta, aldi berean, egokienak Lakarrak egin ditu gaur arte. Horien artean aurrizki honi esleitutako etimologia da: *\*dar*. Trasken ideiari jarraiki, eta Lakarraren erro monosilabikoaren (CVC) hipotesia baztertzeko inolako asmorik gabe eta, beraz, *da*- aurrizkiak galdutako kontsonante bat eduki behar duela aitortuz, fonetikoki posiblea den *-r* bat proposatu zuen. Gainera, euskarak badu munduko hizkuntzetan ohikoa den ‘eseri’ adieradun morfemen gramatikalizazioa erakusten duen adizki bat: *jarri* (*\*e-darr-i*). Morfema honek, Lakarraren ustez, jatorrian adiera progresiboa edukiko luke.

## 2.2. *da-*: Inflexioa vs. adberbioa

Hitz hurrenkeraren eta morfema-ordenaren arteko lotura aztertu zutenen artean Gomez izan zen (1994) (ondoren Gomez & Sainz-ek (1995) jarraitua), Trasken ondoren (1977), analisirik sakonena egin zuena. Euskarak, SOA hizkuntza izanik, ez dio dagokion tipologiari erantzuten gaur egun erakusten duen morfema-ordenari erreparatzen badiogu:

(12) a. *n-a-tor*      b. *g-a-to-z-ki-zu*

(13) a. *z-a-it-u-t*    b. *z-en-u-∅-en*

Euskara jatorrian SOA hizkuntza izango balitz (eta gaur egungo morfema-ordenak garai bateko sintaxia islatzen duela iritzita) arazoak aurkituko genituzke goian emandako adibide sailean. Aditz iragangaitzei dagokienez, egia da subjektua beti agertzen dela aditzaren aurrean eta, beraz, SA tipologiara egokitzen da: *n-* / *-tor* (12a) eta *g-* / *-to* (12b) adibideek hori erakusten dute. Aldiz, (13a)k OAS hurrenkera erakusten du (*z-* / *-u-* / *-t*); (13a) adibide lausoagoak SAO hitz ordena dakar, nahiz hirugarren pertsona absolutiboaren kokapena zein den ez dagoen garbi ageriko morfemarik ez duelako. Arazo honi erantzuna aurrerago emango zaio.

Gomezek (1994) ateratzen duen ondorio nagusia honakoa da: euskara inoiz ASO hizkuntza izan zen. Hemendik sortuko da atal honetan landuko dudan bigarren arazoa, hau da, *da-* inflexioa ala adberbioa ote den ez dago batere garbi Gomezek dioenaren arabera. Baina goazen pixkanaka.

Azter ditzadan, lehenik, AO eta OA hizkuntza tipoek dauzkaten ezaugarri tipologiko nabarmenenak. Ondorengo taulan laburbildu ditut bataren zein bestearen ezaugarriak:

AO	OA
Preposizioak	Postposizioak
Aurrizkiak	Atzizkiak
Inflexioa ezkerrean	Inflexioa eskuinean
AS ezkerrean (osagarriarekiko)	AS eskuinean (osagarriarekiko)

2. Taula: AO eta OA hizkuntza tipoen ezaugarriak nabarmenenak.

Euskararen morfema-ordenari erreparatuz, aditzaren eskuinetara agertzen dira, oro har, bai perpaus iragankorreko subjektua eta baita zehar objektua ere (NOR da salbuespena, baina aurrerago argituko dut arazoa):

(14) *d-a-kar-ki-zu-t*

A O S

Honekin ateratzen den lehenengo ondorioa zera da: euskara inoiz AO hizkuntza izan zen. Hizkuntzek aldaketa tipologikoak jasaten dituzten baieztapena zabaldua eta onartua dago. Gaztelaniak, esaterako, gaur egun SAO motatako hizkuntza den arren, baditu latinetik eratorria izanaren arrastoak. Latina SOA hizkuntza izan zen (munduan beste asko diren bezala, bide batez) eta gaztelaniazko *te veo* bezalako proklisiek SOA jatorrizko egituraren aztarnak erakusten ditu (*te* = O / *veo* = A). Euskararekin ere berdin gertatzen da (kasu honetan aurkako norabidea gertatu da: AO > OA).

NOR kasuak salbuespena erakusten du teoria honen arabera. Azter dezagun ondorengo adibidea:

(15) *n-a-kar-zu*

O A S

Gomezek proposatzen duen ASO egituradun hizkuntza, teorian (edo praktikan nahi bada), ez da ASO hizkuntza bat, #X-A-... egitura duena baizik: *aditzaren aurretik ipini zerbait* estrategia, aditza lehenengo kokalekutik babesteko helburua duena, erabiltzen da mota honetako hizkuntzetan. (15) adibidea erakutsiko lukeena, beti ere Gomezen hipotesiaren arabera, ondorengo egitura litzateke:



(16) ABS-A-(-DAT)-ERG

Sakonean *A-ERG-ABS*<sup>7</sup> (hemen dago ASO hurrenkera) izango genukeena *ABS-A-ERG* bilakatzen da aipatu aditzaren babes ematearen arrazoia bidez. Beraz, absolutiboa aurreratzea da estrategia honen aukeretan lehena.

Absolutiboa hirugarren pertsona denean arazoa sortzen da strategiaren kaltetan: hirugarren pertsona ordezkatzeko duen erakusleak ez du kualifikatzen lehen posizioan aditza babesteko. Egoera honek orainaldiko eta iraganeko formen artean jokabide desberdinak erakusten ditu (desberdin jokatzearen arrazoiak lausoa da, baina gai interesgarria, aldi berean, gai honi dagokion azterketan aurrera egiteko). Iraganeko formetan ergatiboa da aditzari babesa ematen diona, baldin eta lehenengo edo bigarren pertsonakoa bada (ikus (13b) adibidea); orainaldiari dagokionez, atal honetan aztergai den *d(a)*- morfema agertzen da lehenengo kokalekuan (ikus (14) adibidea).

*Da-* morfemari dagokion azalpena ematen hasi aurretik, aipa ditzadan *#X-*a ordezkatzeko erabiltzen diren lehentasunak eta hautagaiak. Ondorengo eskeman agertzen dira laburbilduta:

	<i>#X-</i>
1. Aukera	ABS
2. Aukera	ERG
3. Aukera	Adberbioa ( <i>d-</i> , <i>z-/ø-</i> , <i>l-</i> , <i>b-</i> )

3. Taula: *#X-* ordezkatzeko duten hautagaiak eta erabilitako lehentasunak.

Lehenengo aukerak absolutiboa lehenengo eta bigarren pertsona izatea eskatzen du. Bigarren aukerak hiru baldintza bete behar ditu: bata, absolutiboa hirugarren pertsonakoa izatea; bigarrena, ergatiboa hirugarren pertsonakoa ez izatea; eta hirugarrena, orainaldia ez izatea (hurrengo puntuan (2.3.) sakonduko da gaia, *ergatiboaren lekualdatzea* deritzon fenomenoak). Hirugarren eta azken aukera sortzeko beharrezkoa da bai absolutiboa eta baita ergatiboa ere hirugarren pertsonakoak izatea.

<sup>7</sup> Datiboa baztertu egin dut azalpenaren mesedetarako.

Hirugarren aukerak (#X- = *adberbioa*) de Rijk-ek proposatzen duena (1992) onartzeko aukera ematen du. Modu honetara, \**dan* ‘orain’ adierazten duen adberbioa egokia da hasiera batean:

(17)<sup>8</sup> a. *da-go*      b. *da-tor-ki-zu*      c. *da-kar-t*      d. *da-rama-ki-zu-t*

Perpaus iragangaitzeko subjektua hirugarren pertsona denean aditzaren aurrean agertzeko ordezkari bakarra aipatu adberbioa da orainaldiari dagokionez. Hori erakusten dute (17a) eta (17b) adibideek. (17b) adibidearen kasuan beste arazo bat sortzen da: zergatik ezin du datiboak bete aurreneko egongune hori? Beste modu batera esanda, zergatik ez du *zatorchio* forma hipotetiko batek ‘hura zuri’ adierazten? Gomezen ustez datiboa adierazten duten izenordainak beranduago uztartuko ziren, absolutiboak eta ergatiboak beren lana bete ondotik hain zuzen ere (Gomez, 1994:108). Perpaus iragankorretan absolutiboa hirugarren pertsona denean ere (NOR-NORI-NORK adizkietan ezinbestez, *Me-lui* deitu izan zaion murriztapenaren ondorioz) *da-* agertzen da. Orainaldiarekin eta iraganarekin gertatzen den egoera bikoitza (biak kontrajarriak direla esango nuke) lehenago ere aipatu dut eta argitu gabeko gaia da ea zergatik *nekarren* adizkiak ‘nik hura’ adierazten duen, baina *nakar* (vs. *dakart* (17c)) adizkiak, aldiz, ez duen adiera bera hartzen, ageriko subjektu-markak bertan edukita. Gauza bera gertatzen da (17d) adibidearekin: \*\**zaramakiot* (= ‘zuk niri hura’) edo \*\**naramakiozu* (= ‘nik zuri hura’) ez daude euskal aditz paradigmatan.

Bestalde, Trasken orainaldiko *-a-* hizkiaren agerpenarekin lotutako hipotesia (1977) ontzat ematen du Gomezek (*nator* < \**ni-da-tor*). Ontzat emateko arrazoia aldaketa fonologikoetan aurkitzen du: euskaraz ohizkoak diren aldaketetatik kanpoko ezer ez duela eskatzen iruzkintzen du (Gomez, 1994:107).

### 2.2.1. Gomezen hipotesiaren (1994) arazoa.

Laburbilduz, aipa ditzagun Gomezen hipotesiaren (1994) puntu nagusiak zeintzuk diren:

---


<sup>8</sup> Ez dut absolutiboari dagokion markarik gehitu, azalpena errazte aldera.


- i. Gaur egungo inflexioak erakusten duen pertsona ordena jatorrizko hitz hurrenkera batetik dator.
- ii. Euskara inoiz ASO hizkuntza izan zen.
- iii. ASO hizkuntzek aditza bigarren kokalekuan uzteko estrategiak erabiltzen dituzte.
- iv. Estrategien artean ondorengoa da hierarkizazioa:
  - 1) Mugitu absolutiboa aditzaren aurrera.
  - 2) Mugitu ergatiboa aditzaren aurrera.
  - 3) Absolutibori eta ergatiborik ez dagoen kasuetan, adberbioek betetzen dute rola.

Orain azter dezadan goiko puntu bakoitza. Aurreko atal batean (2.1.2.) aipatu dut gaurko morfema ordenak ez duela zertan jatorrizko hitz hurrenkera posible bat ordezkatu. Ez da ezinezkoa, baina derrigorrezkoa ere ez. Bestalde, eta lehenengo puntua onartzen bada, euskara inoiz ASO hizkuntza izan zela dio. Kasu honetan, Ariztimuñok dioenarekin bat nator, hau da, morfemen arteko “mugimendu” gutxiago suposatzen duen OAS tipoa (ere) proposatzen du euskararentzat:


Gaia inolaz ere agortzeko usterik ezta asmorik izan gabe, oraindik horren landua ez dudan baina hein batean sinpleagoa eta, beraz, errazagoa (nahiz tipologikoki bitxiagoa?) litzatekeen proposamena dakart: euskarak garai zahar batean OVS ordena (ere) izan zezakeen, predikatu iragankorretan (cf. *na<sub>O</sub>kar<sub>V</sub>zu<sub>S</sub>*, *-hin<sub>O</sub>du<sub>V</sub>gu<sub>S</sub>-*). Aldiz, iragangaitzetan egungo SV hurrenkera bera izan zezakeen (cf. *na<sub>S</sub>tor<sub>V</sub>*), OVS hizkuntzetan ere ohikoa baita. (Ariztimuño, 2013a:46).

Hirugarren puntuaz ez dut ezer gaineratzeko. Laugarren puntuak, edo hobe esanda, puntu hau tratatzeko erabilitako moduak hipotesiaren ahulgunerik sendoena dakar. Azter ditzagun ondorengo egiturak:





Lehenengo adibide parearen arabera (18), aditzaren aurretik bi osagai agertzen dira: subjektua (aditz iragankorraren kasuan (18b) Traskek (1977) proposatutako pasibotasuna hartu behar da kontuan, horregatik hartzen du osagarriak subjektuaren posizioa) eta inflexioa. Gomezen analisiaren arabera ongi uztartzen dira bi egitura hauek. Baina (19) adibidearen kasuan sortzen da arazoa: aditzaren aurretik osagai bakarra agertzen da (mugitu gabe markatu ditut, *da-* bat inflexioa eta bestea adberbioa dela argi uzteko), aurrez aipatu *da-* morfema hain zuzen ere, eta Gomezek dioenaren arabera adberbioa izan beharko luke. Hortaz, inflexioari dagokion eremua hutsik geratuko litzateke:



Hipotesi honek morfemen klitizazio aldi desberdinak erakutsi behar ditu, derrigor, ontzat eman nahi bada. Baliteke *da-* aurrizkiak, bere etimologia zein den alde batera utzita, jatorrian aditza babestearen funtzioa betetzea *dator* bezalako formak sortuz. Behin hiztunak *da-* morfemaren balio adberbiala bereizten ez duenean eta, ondorioz, *dator* egitura bakartzat hartzen duenean (aditza), lehenengo egongunea hutsik egon bide zen. Modu honetara azal daiteke absolutiboko lehenengo eta bigarren pertsonen agerpena aurreneko egongune honi dagokionez. Baina sakondu eta aztertu gabeko uste bat baino ez da.

### 2.3. Ergatiboaren lekualdatzea

Itziar Laka hizkuntzalariak *ergative displacement* edo “ergatiboaren lekualdatze” izena eman zion morfema ordenari dagokion gai nagusienetariko bati (1988). Labur esanda, fenomeno honek, izenak berak dioen bezala, ergatiboak, orainaldiko forma ez den kasu zehatz batean, absolutiboa hirugarren pertsona denean hain zuzen ere, aurreneko egongunea hartzea erakusten du. Ikus ondorengo adibidea:

(21) a. *n-a-u-zu*    b. *n-ind-u-zu-n*    c. *∅-d-u-zu*    d. *z-en-u-∅-en*

Lehenengo hiru inflexioek (21a, 21b, 21c) ergatiboak ohikoa duen lekua betetzen du (gogoratu ABS-A-(DAT)-ERG dela euskal aditzaren inflexioak erakusten duen hurrenkera kanonikoa). “Ergatiboaren lekualdatze” fenomenoaren definizioak erakusten duen bezala, gorago emandakoaren arabera, hiru adibideok egoera honetatik kanpo leudeke: (21a) orainaldiko forma bat da eta, gainera, absolutiboa ez da hirugarren pertsonakoa; (21b) iraganeko forma den arren (beraz, ‘oraina ez’ betetzen du), absolutiboa ez da hirugarren pertsonakoa; (21c)-ko absolutiboa hirugarren pertsonakoa den arren orainaldiko forma bat da. Beraz, (21d) da adibide sail honetan fenomeno hau erakusten duen forma bakarra, iragana eta absolutiboa hirugarren pertsonakoa dela erakusten duen bakarra baita.

Fenomeno hau hainbat hizkuntzalarik aztertua izan da eta, gaur egun ere, eztabaidarako gai nagusienetariko bat izaten jarraitzen du. Gai honen inguruko bi analisiren berri eman nahi dut jarraian. Bata azalpen diakronikoa da, gorago aztergai izan dudana Gomezek (1994) egindakoa; bigarrenak, berriz, analisi sinkroniko bat erakusten du, Ormazabalek proposatutakoa (2013), *Me-lui* fenomenoarekin lotura zuzena daukana. Ondorengo lerroetan azalduko ditut bakoitzaren punturik nagusienak.

#### 2.3.1. Gomez (1994)

Gorago egindako deskribapenaren harira, Gomezek AOS hizkuntza mota proposatzen du jatorrizko euskararentzat, gaurko morfema-ordenak erakusten duen egitura AOS-ra egokitze bide gertatu ziren mugimenduak proposatuz. Ikusitakoaren arabera, mugimenduok ikuspuntu sintaktikotik aztertzen ditu hizkuntzalari honek. Baina

“ergatiboaren lekualdatzea” fenomenoaren arrazoi prosodikoekin lotzen du, bere hitzetan “bada kasu bat non pertsona izenordainik ez dagoen eta, dirudienez, partikula erakusgarririk ere ez zegoen (edo  $\emptyset$ - zen). Hau iraganaldian (eta beronekin erlazionatutako adizkietan) absolutiboko hirugarren pertsona singularra dugunean gertatzen da. (...) Zerbaitek bete behar du aditzaren aurreneko egongunea eta adizki hauetan eskura dagoen elementu bakarra klitiko ergatiboa da” (1994:106-107).

Analisi honi arazo bat ikusten diot. Badira inolako babesik gabe daudela erakusten duten zenbait aditz jokatu. Adizki iragangaitzetan absolutiboa hirugarren pertsona denean ondorengo formak agertzen zaizkigu:

(22) a.  $\emptyset$ -*da-go*      b. *z- $\emptyset$ -e-go-en*      c. *l- $\emptyset$ -e-go-ke*      d. *b- $\emptyset$ -e-go*

Goiko adibideko *da-*, *z-*, *l-* eta *b-* adberbiotzat hartzen baditugu ez da inolako arazorik sortzen, modu honetara aditza babestuta geratzen baita. Arazoa, lehenago aipatu bezala (2.1.3.), *da-* de Rijken analisiaren arabera tratatzean sortzen da: adberbiotzat baino inflexiotzat hartzea egokiagoa iruditzen zait, Trasken (1977) analisisia hobetsiz. Ondorioz, (22a)-k babesik gabeko aditz jokatu baten adibidea erakusten du. Aditza lehen posizioan saihesten duen baldintza ADITZARI buruz baino INFL + ADITZARI buruzkoa dela pentsa daiteke. Gaur egun ere hori da ikusten duguna: *arazo bat eduki dut* perpausoko inflexioa (INFL + ADITZA) prosodikoki beregaina den bezala, *\*daukat arazo bat* perpausa ez da gramatikala inflexioa babesik gabe dagoelako.

Bestalde, NOR-NORI kasu batek ere aditz jokatua babesik gabe dagoela erakusten du:

(23) a. *n-a-tza-i-o*      b.  $\emptyset$ - $\emptyset$ -*za-i-o*  
ABS-ORAIN-A      A

(23a)-ren arabera, hipotesia egoki uztartzen da aditza “babeztuta” dagoelako. Aldiz, (23b)-k aditza lehenengo kokalekuan dagoela eta, beraz, prosodikoki beregaina dela adierazten du (hiztunak inflexio beregaintzat dauka).

### 2.3.2. Ormazabal (2013)

Ormazabalek (2013) egiten duen analisia oso bestelakoa da. Gomezek egin bezala, Ormazabalek ikuspegi sintaktikotik egindako azterketa bat egiten du “ergatiboaren lekualdatze” fenomenoaren nondik norakoak azaltzeko. Bataren eta bestearen arteko aldeak, ordea, diakronia-sinkronia azterbideek markatzen dituzte: Gomezek ikuspegi diakronikoa eman zuen bere artikuluan; Ormazabalek, berriz, alderdi sinkronikotik ematen ditu bere azalpenak. Jarraian, azken ikerlari honen artikulua ideia nagusienak aipatuko ditut.

#### 1) Euskarak ba ote du aplikatiborik?

Munduko hizkuntza batzuetan badira argumentuak ez diren osagaiak argumentu bihurtarazten dituzten estrategia gramatikalak. Estrategia hauek *aplikatibo* izenez ezagutzen dira. Badira, esate baterako, lokatiboaren marka (euskarazko *-n* inesiboaren parekoa) aditzaren inflexiora eraman dezaketen hizkuntzak, lehenago aditzak zeukan argumentu kopurua gehituz. Mohawkerak erakusten duen kasua antzeko zerbait da: objektu komunztadura aldarra da objektua bizidun / bizigabe oposaketaren arabera, non, lehenengoak, aditz nagusian inkorporatuta edo inflexioan ageriko komunztadura bidez (eta ez biak batera) agertzen diren eta, bigarrenengoak, ez duen inoiz objektu komunztadurarik erakusten, nahiz eta aditz nagusian inkorporatuta ager daitezkeen. Horregatik, komunztadura erakusten duten objektu bizigabeek aplikatiboen beharra daukate, egitura hauek aditzarekin komunztatu egin behar baitute derrigor. Baina mohawkeraz objektu bizidun batzuk *ageriko komunztadura* araua bete beharra daukate eta, ondorioz, ezin dira aditzean inkorporatuta agertu arestian aipatu murrizketa dela-eta. Beraz, egitura aplikatiboak aditzean inkorporatu daitezkeen objektu bizigabeekin soilik konbina daitezke, mohawkeraz komunztadura posizio bakarra onartzen baita. Laburbilduz:

i. Objektu bizidunek (zenbaitek) bi aukera dauzke komunztadura sistemara egokitzeke:

- 1) Aditz nagusian, inkorporazio bidez.
- 2) Inflexioan, ageriko komunztadura bidez.

ii. Objektu bizigabeak inkorporatu daitezke, baina aditzarekin ezin duten komunztatu.

iii. Objektu bizigabeek, komunztatzeke, aplikatiboen beharra dute; mohawkerazko egitura aplikatiboek komunztatu egin behar dute.

iv. Mohawkeraz bi kokaleku daude argumentuentzat:

- 1) Aditz nagusian (inkorporazioa).
- 2) Inflexioan (ageriko komunztadura).

v. Ondorioz, argumentu egituretan murriztapenak daude mohawkeraz: ageriko komunztadura bete behar duten objektu bizidunak, adibidez, ezin daitezke egitura aplikatiboekin batera agertu.

Euskarari dagokionez, euskarak baditu argumentu egituraketen inguruan murriztapenak erakusten dituen zenbait aditz. Ikus ondorengo adibidea (Ormazabal, 2013:11):

- (24) a. Neska hori Itxaso-ri gustatzen za-i-o  
b. \* Ni Itxaso-ri gustatzen n-a-za-i-o

*Gustatu* aditzak argumentu bakarra eskatzen du: subjektua (datibo kasua, bide batez). Euskaraz datibodun egiturak argumentuak direnez eta, beraz, inflexioan komunztadura agertzen duenez, (24a) eta (24b) adibideen arteko desberdintasuna batean ageriko komunztadura bakarra dagoela (hirugarren pertsonak ez du kokalekurik betetzen inflexioan (24a)-n) eta bestean (24b), ordea, bi argumentu kokaleku bakarrarentzat (*ni + subjektua*).

Baina gatozen hasierako galderara: euskarak ba ote du aplikatiborik? Beatriz Fernandez hizkuntzalariak euskarazko datibo komunztadura egitura aplikatibo baten ondorioa dela proposatzen du (2012). Kontuan edukitzekoa da, euskal aditz inflexioari erreparatuz gero, datiboak aurretik *-(k)i-* morfema izaten duela beti, argumentu absolutibo edo ergatiboek izaten ez duten bezala. Fernandezen ideia nagusia *-(k)i* aplikatiboaren bidez, euskaraz datibo sintagma perpausean gaineratzeko erabiltzen den estrategia nagusia,



behin aditz inflexiora gehitutakoan, argumentu bat gehiago agertzean datza. Begira aditz ez-akusatiboen (NOR aditzen) egiturak NOR eta NOR-NORI adizkietan:

(25) a. *Ni n-a-tor*                      b. *Ni zuri n-a-tor-ki-zu*

Fernandezek dioenez, (25b)ko *zuri* datiboa ez da *etorri* aditzak eskatzen duen argumentu bat, baina aplikatiboaren bidez argumentu izatera bilakatzen da lehenago “adjunktu” funtzioa betetzen zuena.

## 2) Euskara eta argumentu egituren murrizketak

Analisi honen harira, Ormazabalek, euskararentzat, mohawkeraz bezala, argumentu egituretan murriztapen nagusi bat antzematen du:

- Aditz ez-akusatiboak (NOR) + aplikatiboak (NORI) batera agertzen direnean, bi komuntadura-leku (ez gehiago) baimentzen dituzte: “subjektu” posizioa eta “aplikatibo” posizioa.

Euskarazko egitura ditransitiboak (NOR-NORI-NORK) murriztapen honen arabera aztertzen ditu Ormazabalek. Arazoa hirugarren argumentu baten agerpenak ekartzen du, hau da, hiru argumentu leudeke sistemak onartzen dituen bi kokaleku betetzeko. Ondorioz, honelako egiturak ez dira gramatikalak euskaraz (Ormazabal, 2013:13):

(26) a. \*    Zuk                      etsaia-ri            **ni**    saldu                      **n-a-i-o-zu**  
      b. \*    Etsaiak                    zu-ri                **ni**    saldu                      **n-a-i-zu-Ø**

Subjektuentzat “gordeta” dagoen kokalekua *zuk* (26a) eta *etsaiak* argumentuek betetzen dute, hurrenez hurren. Datiboak, lehen aztertu bezala eta egitura aplikatibo bat denez, aplikatiboari dagokion lekua betetzen du, edozein delarik ere ordezkatzeko pertsona. Beraz, absolutiboa da “soberan” dagoen hautagaia eta, ondorioz, azken honek egiten du perpausa ez-gramatikala izatea. Aldiz, absolutiboa hirugarren pertsona denean perpausa gramatikala da, hirugarren pertsonak ez baitu ageriko morfemarik inflexioan komuntadurarako:

(27) **Guk zu-ri hamaiketakoa** lapurtu **∅-d-i-zu-gu**

3) Datiboaren presentziak ez dio “ergatiboaren lekualdatze” fenomenoari eragiten

Euskal inflexioak ondorengo bi egiturak baimentzen ditu aditz iragankor erregularrak irudikatzeko:


1) Aurrizki modura absolutibo forman dagoen pertsona komunztadura eta atzizki modura ergatibo forman dagoen pertsona komunztadura erakusten duena (ABS-A-ERG = O-A-S)

2) Aurrizki modura ergatibo forman dagoen pertsona komunztadura eta absolutiboaren ageriko markarik ez duena (ERG-A = S-A).

(28) a. Zuk ni ikusi **n-ind-u-zu-n**  
b. Zuk liburua ikusi **z-en-u-en**

Goiko (28) adibide saileko lehenak *ABS-A-ERG* (edo *O-A-S*) egitura erakusten du, bigarrenak *S-A* egitura erakusten duen bezala. Mugimendu sintaktiko desberdinak suposatzen ditu egitura bakoitzak, baina ezerk ez ditu mugimenduok eragozten. Lehenengo adibidean (28a) bai absolutiboak eta baita ergatiboak ohiko Determinatzaile Sintagma (DS) mugimenduak erakusten dituzte (Ergatiboak [espez, a'] → [espez, Denb'] eta absolutiboak [osag, A'] → [espez, Asp']); bigarrenean, absolutiboaren ageriko morfemaren faltan ergatiboak mugimendu bikoitza burutzen du ([espez, a'] → [espez, Asp'] lehena eta [espez, Asp'] → [espez, Denb'] bigarrena). Datiboaren agerpenak, teorian, oztopo izan behar luke “ergatiboaren lekualdatze” fenomenoaren gauzapenerako. Izan ere, behin datiboa objektu bihurtuta (argumentua, beraz) *O-A-S* aukera izango genuke logikoena, baina *S-A* gauzatzen da. Ikus ondorengo adibidea (Ormazabal, 2013:10):

(29) a. Nik zuri liburua eman **n-i-zu-n**  
S-A(?)



Erantzuna aditz ez-akusatiboetan aurkitzen du Ormazabalek. Adizki hauetan subjektua beti agertzen da erroaren aurretik, eta “ergatiboaren lekualdatze” fenomenoa subjektuaren lehenengo kokaleku honen bidez azaltzen du:

- (30) a. **n-intz-en**                      b. **n-u-en**  
           S                                      S

Argumentu bakarra agertzen da goiko bi adibideetan. Lehenengoak (30a) NOR aditz absolutibo ohiko bat erakusten du (gogoratu aditz iragangaitzen subjektua beti kokatzen dela aditzaren ezkerretara). Bigarrenak ere “argumentu bakarra” erakusten du, absolutiboko hirugarren pertsonak ez baitauka ageriko komunztadurarik eta, beraz, argumentu bakarra duen adizkiek bezala jokatzen du: subjektuaren posizioa ezkerretara kokatzen da. Baina, zer gertatzen da aditz iragangaitz aplikatibodun (NOR-NORI) eta aditz ditransitiboekin (NOR-NORI-NORK)? Ikus ondorengo adibidea:

- (31) a. **n-intza-i-zu-n**                      b. **n-i-zu-n**  
           S            O (aplik)                      S    O (aplik)

Ondorioz, euskal aditz jokatuak argumentuentzat bi kokaleku “gordetzen” ditu: bata subjektuari dagokio; bestea, aplikatiboari.

• Ormazabalen (2013) hipotesiaren arazoak.

Bi dira hipotesi honi ikusten dizkiodan arazoak:

1) natzaizuri zerbait sobratzen zaio

Hiztunak modu automatikotan ekoizten ditu perpausak, erabilgarri dituen osagaiak elkarrekin konbinatuz. Eskuragarri ez dituen osagaiak erabiltzerik ez duenez, estrategia desberdinez baliatzen da ekoiztu nahi duen perpausa ekoiztu ahal izateko. Me-lui murriztapenak, esate baterako, absolutiboak (euskaraz) hirugarren pertsonakoa izan behar duela arautzen du, lan honetan zehar aipatu arrazoiak medio. Hala ere, murriztapenak murriztapen, hiztunak *zuk-hari-ni* esanahidun perpausak ekoiztu ditzake estrategia batzuk erabiliz. Har dezagun adibide hau:

- (32) a. Saldu egin nauzu, nori eta etsaiari.  
b. (?) Zuk etsaiari **nire burua** (= ‘**ni oso osorik**’) saldu diozu.

Antzeko zerbait gertatzen da NOR-NORI saileko lehenengo eta bigarren pertsona absolutiboko adizkiekin: *natzaizu* bezalako adizkiak ez dira erabiltzen, hiztunari arrotz egiten zaizkiolako. Hiztunak *ni-hari* esanahidun perpausak ekoizteko gai da, baina NOR-NORI moduko adizkiak saihestu egiten ditu normalean:

- (33) a. Dendaria zuregana hurbildu da  
b. Dendaria zuri hurbildu za-i-**zu**

- (34) a. Ni etxera hurbildu **naiz**  
b. ??? Ni etxeari hurbildu **natzaio**

Arraroa den perpausak (34b) bi argumentu erakusten ditu: subjektua eta aplikatibo bidezko datiboa. Gainerakoek ageriko argumentu bakarra, edo bat bera ere ez (33a), erakusten dute. Beharbada, aditz iragangaitzek komunztadura kokagune bakarra onartzen dutelako dira bitxiak *natzaizu* gisako adizkiak.

2) Zer egin genezake orain?

Ormazabalek “ergatiboaren lekualdatze” fenomenoaren azalpena aditz ez-akusatiboetan aurkitzen du, hau da, subjektua erroaren ezkerretara agertzen da beti. Ikus dezagun ondorengo adibide pareak:

- |      |                                      |   |
|------|--------------------------------------|---|
| (35) | a. Nik telebista ikusi <b>n-u-en</b> | b. Nik telebistari hautsa kendu <b>n-i-o-n</b>  |
|      | S-A                                  | S O (apl)                                       |
| (36) | a. Nik telebista ikusi <b>d-u-t</b>  | b. Nik telebistari hautsa kendu <b>d-i-o- t</b> |
|      | A-S                                  | O (aplik) S                                     |

Adibideek erakusten dutenez, azalpenak ez du orainaldiko egituretarako balio. Horrela balitz, **\*\*n-a-u** (‘nik-hura’) adizkia izango genuke (36a) adibidean, eta **\*\*n-i-o** (‘nik-hari-hura’) (36b)-n.

## ONDORIOAK

Lan honetan zehar euskal aditzaren inflexio egitura, argumentuek hartzen dituzten kokaguneak zehatzago esate aldera, deskribatzen saiatu naiz. Patroi erregularrak erakusten dituen arren, perpaus iragangaitzeko subjektuaren egongunea esaterako, hain konstanteak ez diren jokaerak aurki daitezke testuinguru desberdinen arabera. Atera dudan lehenengo ondorioa, beraz, euskal aditz inflexioak biltzen dituen argumentuek sistema konplexu bat osatzearena litzateke.

Bestalde, diakronian dabilen ikerlari askok gaur egungo morfema-ordenaren erantzuna garai bateko syntaxian aurkitu (nahi) izan du. Honen ondorioz sortu dira Trasken (1977) *SAO* hipotesia, Gomezen (1994) eta Gomez & Sainzen (1995) *OAS* hipotesia, eta abar. Baina erakutsi da, munduko hizkuntzek hala erakusten baitute, *gaurko morfema-ordena* = *atzoko hitz hurrenkera* baieztapena, posible den arren, ez dela derrigorra. Bigarren ondorioa gaiak “joerek” bultzatuta tratatzearekin lotuta dago: aukeretan bat gehiago da lehenago aipatu baieztapena, ez, ordea, beharrezkoena. Beharbada hemendik urte batzuetara bestelako teoria-korronteren bat sortuko da eta ikerlariak hortik joko du bere ekarpenak ematerako orduan.

Azkenik, gai honek azterbide asko eta interesgarriak, nire ustez, eskaintzen ditu. Gainera, gai honek eskaintzen dituen arazo asko eta asko argitu gabe daude oraindik. Ergatiboaren lekualdatze fenomenoak, esaterako, modu batera edo bestera tratatu den arren, oraindik ez du erantzun egokirik jaso, inork ez baitu argitu zer gertatzen den orainaldiarekin (edo orainaldia ez den beste guztiarekin?). Aurrera egiteko baliabideak badaude baina oraindik badago zer aztertua.

## BIBLIOGRAFIA

Ariztimuño, B., 2013a, “Euskal aditz jokatuaren osaeraz eta jatorriaz zenbait ohar” in R. Gomez et. al., ed. Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra, Gasteiz: EHU, 41-60.

Ariztimuño, B., 2013b, “Finite verbal morphology” in Mtz. Areta, ed. Basque and Protobasque, Frankfurt: Peter Lang Academic Ed., 359-427.

Fernandez, B., 2010, “Datibo osagarri bitxiak eta datiboaren lekualdatzea: *ari nai diyot* eta *kanta egin nazu* bidegurutzean”, *ASJU* 52, 113-149.

\_\_\_\_\_, 2012, “-(k)i eta -ra”. *ASJU* 46, 2: 257-270.

Gómez, R., 1994, “Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSO-tik SOV-ra?”, in J. Orpustan (arg.), *La langue basque parmi les autres: influences et comparaisons*, Izpegi, Baigorri, 93-114.

\_\_\_\_\_ & K. Sainz, 1995, “On the origin of the finite forms”, in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 235-274.

Heath, J., 1977, “Remarks on Basque Verbal Morphology”, in Douglass *et al.* (arg.), 193-201.

Heine, B., 2003, “Grammaticalization”, in B.D. Joseph & R.D. Janda (arg.), *The Handbook of Historical Linguistics*, Blackwell, Oxford, 575-601.

Laka, I., 1988, “Configurational heads in inflectional morphology: the structure of the inflected forms in Basque”, *ASJU* 22, 343-365.

Lakarra, J., 2006, “Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco”, in J.A. Lakarra & J.I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R.L. Trask* (=ASJU 40:1/2), UPV/EHU, Bilbo, 561-621.

Oregi, J., 1974, “Euskal-aditzaz zenbait gogoeta”, *FLV* 17, 265-283.

Ormazabal, J., 2013, “Ergative Displacement and the Theory of Agreement”,  
Eskuizkribua UPV/EHU.

de Rijk, R.P.G., 1992, “‘Nunc’ Vasconice”, *ASJU* 26:3, 695-724.

Trask, R.L., 1977, “Historical Syntax and Basque Verbal Morphology: Two  
Hypotheses”, in Douglass *et al.* (arg.), 203-217.